

TREBAKUNTZA 2019-04: € IKURRA ETA DEKLINABIDE-MARKAK

Sarritan, zalantza izaten dugu nola deklinatu € ikurra. Adibidez: 100 €-tik gorakoak, 100 €tik gorakoak ala 100 eurotik gorakoak.

Eusko Jaurlaritzaren Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO) kontsultatu dugu, eta hauxe da erabakia:

“Irizpide orokorra da 100 eurotik gorakoak erabiltzea. Baina, kasuan-kasuan ikusi behar da zein komeni den; izan ere, grafikoetan-eta litekeena da € idatzi behar izatea. Nolanahi ere, € zeinua ikurra da, eta horregatik, erabiliz gero, marra idatzi behar da zeinuaren eta atzizkiaren artean”.

Beraz, IZO euro letraz idaztea gomendatzen du, ez zeinuz. Baina, **€ zeinua idatzi behar denean**, atzizkia erantsi behar izanez gero, **marra** idatzi behar da zeinuaren eta atzizkiaren artean.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEM Ako teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99